



Beti gertatzen zait oso atsegina itzulpengintzarekin zerikusia duten artikuluak irakurtzea. Senez aldizkariaren ale oso bat irakurri arte hainbat eta hainbat hilabete joaten bazaizkit ere –denbora-faltagatik gehienbat, edota lan-jardunaldi aski luze eta akigarriek eragindako nekeagatik, edota “urteek” barkatzen ez dutelako–, hori guztiori gorabehera, normalean nire helburua betetzea lortzen dut azkenean: Senez aldizkaria goitik behera irakurtzea.

Iruzkin-pare bat baino ez dut egingo arestian irakurri ditudan bi artikuluri buruz. “Izen + aditz konbinazioen itzulpenaz eta tratamendu konputazionalaz” izeneko artikuluan, hainbat egilek izenpetutako horretan, juxtu artikuluaeren hasieran, oker osatutako 5 esaldi jarri dituzte adibide gisa, honako hauek:

- 1) Hizlariak berehala *gatibatu* zuen entzuleen interesa → interesa *bereganatu* zuen
- 2) Epeak datorren astean *garaituko du* → epea *amaituko da*
- 3) atenzioa deitu/prestatu → atenzioa eman
- 4) ilea hartu → adarra jo
- 5) kontutan izan/hartu/eduki → kontuan izan/hartu/eduki

Lehen adibidea da erabat konbentzitzen ez nauena. Azken batean, “cautivar” erdal terminoaren oinarritzko zentzua ziur aski “hacer cautivo, apresar” esanahiarekin egongo zen lotuta hasiera batean, terminoaren adiera primarioa (erromantzean behintzat) ziur aski hori izango zelarik; baina, hiztunen gaitasunak gora egin ahala, hau da, hizkera metaforikoarekiko eta hizkuntza-abstrakzioarekiko gaitasunak gora egin ahala, eta xede eta lizentzia poetikoak tartean, “cautivar” aditza ikuspegi metaforikoago, abstraktuago eta poetikoagoa bereganatuz joan zen, hau da, esangura “sofistikatuagoa”, “kultuagoa” hartu zuen azkenean. Eta, nire iritziz, “gatibatu” euskal aditzarekin ere antzeko bidea egitea ez litzateke bat ere “harrigarria” izango. Gutxi balitz, bi terminoen arteko anaitasuna ere aski agerikoa da.

Printzipioz, “gatibatu” = preso hartu” daukagu, eta bai, hala da, baina momentu jakin batean adiera metaforikoago bat, abstraktuago bat eta poetikoago bat har dezan aparteko arazorik ez dagoela esango nuke. Behintzat, inork pentsatzen ez baldin badu euskaldunok hizkuntza-abstrakzioak egiteko eta adierazpideak “metaforizatze” gaitasuna “gutxituta”-edo daukagula, zeina oso larria izango bailitzateke, horrek berekin ekarriko bailuke munduaren gainean dugun ikuspegia ere “gutxituta” edukitzea, zeinarekin ez nintzatekeen inoiz ados egongo, noski.

Badaezpada ere, Euskaltzaindiaren “Orotariko Hiztegia”ri begirada bat bota diot, eta zuek ere beste horrenbeste egingo bazenute, burutazio hori izan ez duen bakarria ez naizela laster asko ohartuko zinatekete, “gatibatu edo gatibu” terminoari dagokionez.

Ganora gutxiko hiztunek asmatutako esaldi okerren adibideak jarri baino lehen, gauzak polikiago pentsatzea ondo letorkigukeela uste dut, benetan. Edonola ere, txit interesgarria iruditu zait aipatutako artikulua, eta egileek nire esker ona ez ezik, nire miresmena ere badute.

Bestalde, euskal hiztun baten hizkuntza-kalitatea “kontuan/kontutan hartu” deklinabide-jokoaren arabera epaitzea, hori ere gehiegizkoa iruditu zait, edo behintzat, ez dut uste beharrezkoa denik horren zorrotz jokatzea, eta zer esanik ez, ahozko espresioaren kasuan, zeren, denok dakigunez, ahozko hizkera ez-formalagoa izaten baita, eta ondorioz, gramatikaren legeetatik errazago itzurtzekoa.

Niri dagokidan bezainbatean, singularra erabiltzen dut beti, hori iruditzen zaidalako naturalena eta arruntena, baina ahaztu gabe euskalkien mundua aski konplexua dela; jakina, badakit hori dela zabalduena eta Euskaltzaindiak onartutakoa, “kontuan hartu, kontuan izan”, eta abar. Hala ere, euskaldun askok erabiltzen dute “kontutan izan”, eta abar. Sinesten ez badidazue, bota begirada bat Interneten, eta ikusiko duzue forma mugagabea (kontutan) nahiko zabaldua dagoela.

Horregatik, adibide horren orde, agian hobe besteren bat erabili izan balute. Euskaltzaindiaren “adibidetegia” izeneko atalean ere horrelako esaldi bat topatu dut: “dirutzarekiko azterketa egin behar denik eta diru kopuruaren gehiegizkoak eragin dezakeen bultzada ere kontutan hartu behar denik” (EB20:47)

\*\*\*

“Taligner: itzulpen corpus eleaniztasunak sortzeko tresna” artikulua interesgarriari dagokionez, kasu honetan ere gustatuko litzaidake hitz bat edo beste esatea, baina alderdi tekniko, zientifiko edota informatikoetan sartu gabe, jakina, nik hor ezin baitut ekarpenik egin, arlo horietan prestakuntzarik gabea izanik.

Taligner programa edo honen aurreko beste programa antzeko batzuk martxan jartzeko, hainbat hizkuntzatar itzulitako literatur lanak hartu dituzte abiapuntu, artikuluan bertan azaltzen denez.

Hainbat hizkuntzatar itzulita dagoen Atxagaren liburu bat aipatzen dute; eta aurrerago, mota horretako corpus eleaniztunak osatzeko, poesiaz baliatu nahi luketela ere esaten dute. Nik, ordea, ez dakit oso ideia ona den, adibidez, Shakespeare-ren obra abiapuntutzat hartzea, geroagoko aplikazio praktikoak hortik lortzeko...? Zeren, hortik emaitza “praktikoak” ere lortu nahiko dituzte, ezta?

Ez dakit, baina, ez al litzateke argigarriagoa eta errazagoa izango sormen artistikorik gabeko testuak oinarritzat hartzea mota horretako ikerketak bultzatzeko, literatur lanak eta literatur itzulpenak erabili beharrean, eta zer esanik ez, poesia erabili beharrean?

Badakit dena izan daitekeela interesgarria, bai, baina itzulpen teknikoetan oinarritutako testuak abiapuntu gisa hartzea litekeena da praktikoagoa eta probetxugarriagoa izatea, xede-hizkuntzaren eta jomuga-hizkuntzaren arteko konparaketak egiteko orduan, kasu.

Gainera, horrelako corpus bat itzulpen automatikorako –agian– erabiltzeko asmorik izanez gero (eta ez nago ziur programa hau horretarako ere erabili ahal izango zen), ez al lirateke hitzez hitzeko itzulpen askoz fidagarriagoak lortuko itzulpen teknikit abiatuta itzulpen literariotik abiatuta baino? Zergatik diot hori? Bada, sormen-arrazoi hutsengatik, esaterako. Hau da, literatura sormen hutsa da, eta literatur itzulpenekin ere gauza bera gertatzen da, itzultzaileak sortzaile izan behar du; adibidez, une jakin batean beharrezkoa izan daiteke jatorrizko testuan dagoen “sentsazio” bat “itzultzea”, baina horretarako, hitzez hitzeko itzulpen batek ziur aski ez dizu balioko, nahiz eta

sintaktikoki eta gramatikalki bideragarria izan. Itzulpen literarioan itzultzaileak bere burua “askeago” senti dezake zenbait esaldiren itzulpena bideratzeko orduan, hainbat arrazoi direla medio: konplexutasuna, abstrakzioekiko joera, “ezkutuko” mezuak itzuli beharra, hitz-joko itzulezinak, testuinguruak, eta abar, eta abar... Testu teknikoetan normalean gertatzen ez diren –edo gertatu beharko ez luketen– kasuak dira horiek. Azken finean, itzulpen tekniko batean erretorika ez da garrantzizkoena, figura literarioek ez dute aparteko lekurik, kontzeptu eta ideia askotan oso zailak ahalik eta argienik azaltzea izanik itzulpen tekniko baten alderdirik garrantzitsuena.

Horregatik, konplexutasun-maila horietara heldu baino lehen, “itzulpen teknikoaren” iragazkitik pasatzea emaitza hobekak eman litzakeela uste dut, batez ere hizkuntza eta prozesu eleaniztun horietatik aplikazio eta emaitza praktikoak lortzeari begira.

Nolanahi ere, artikulua gaia berez interesgarria da.

\*\*\*